



HEZKUNTZA SAILA  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailburuordetza  
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de  
Universidades e Investigación  
Dirección de Política y Coordinación  
Universitaria

**EBAZPENA, 2020ko urtarrilaren 27koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2019ko irailaren 1etik 2020ko irailaren 30era bitarteko aldirako unibertsitateko Ikasiker lankidetzeta-beka eskaeren ebazpena ematen du, B modalitateari dagokionean.**

Hezkuntza sailburuak, 2019ko uztailaren 9ko aginduaren bitartez (uztailaren 24ko EHAAn argitaratua), 2019ko irailaren 1etik 2020ko irailaren 30era bitarteko aldirako Ikasiker lankidetzeta beken deialdia egin zuen, unibertsitateko ikasleentzat. Agindu horrek, 3.2 artikuluan bekaren B Modalitatea jasotzen du: lankidetzeta udan zehar egiteko, alegia, 202ko ekainaren eta irailaren artean.

Hautaketa-batzordeak, 2019ko abenduaren 3an, Ikasiker lankidetzeta bekarako A eta B modalitatean aurkeztutako eskaeren ebazpen proposamena aurkeztu dio Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariari.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

#### EBAZTEN DUT

**Lehenengoa:** Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena zenbakia dutenei beka ematea, zenbatekoa: 17.000 euro, B Modalitatean (Eranskina I).

**Bigarrena:** Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileei eta, baldintzak bete arren, beka lortzeko behar den ordena-zenbakia ez duten eskatzaileei beka ukatzea, B Modalitatean (Eranskina II).

**Hirugarrena:** Interesatuak, gorako errekurtoa jarri ahal izango dio Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 27a.

Miren Artaraz Miñón

UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA